

*Medio Ambiente, un compromiso con generaciones futuras*



*Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa*

## **INGURUMEN-IKUSKAPENERAKO ETA-KONTROLERAKO PROGRAMA 2015**

*Ingurumen Sailburuordetza  
2015eko urtarrila. Ber. 0*

1.	SARRERA .....	3
2.	2015EKO PROGRAMAREN HELBURUAK.....	4
2.1.-	2015EKO HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK.....	6
2.2.-	2015EKO IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: BERARIAZKO HELBURUAK ETA JOMUGAK.....	7
1.	HELBURUA: IPPC JARDUERETARAKO ARAUDIA JARRAITASUNEZ BETETZEA. ....	7
2.	HELBURUA: ARRISKU HANDIENA DUTEN ETA IPPC EZ DIREN JARDUEREK INGURUMEN-ARAUDIA BETETZEA.....	9
4.	HELBURUA: HONDAKINEN ARAUDIA BETETZEA. ....	10
5.	HELBURUA: INGURUMEN-ARAZOAK KONPONTZEN EDO KONTROLATZEN LAGUNTZEA .....	11
7.	HELBURUA: ABISUEN (KEXAK, SALAKETAK, GERTAKARIAK...) ETA PROGRAMATU GABEKO IKUSKAPENEN KUDEAKETA. ...	13
9.	HELBURUA: IKUSKAPEN-AHALMENA HANDITZEA. ....	13
10.	HELBURUA: IKUSKAPENAK EUROPAKO TESTUINGURUAREN ARABERA EGITEA.....	14
3.	GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA. ....	14
4.	INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.....	14
5.	KONTROL-PLANA. ....	15
6.	INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA. ....	15
7.	INGURUMEN-IKUSKAPENERAKO ETA -KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.....	15

## 1. SARRERA

---

2015eko Programa hau **Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2011-2018 aldirako Planaren** barruan kokatuta dago. Plan horretan, minimizatu egiten da Ikuskapen Zerbitzuak baimentze-prozedurei lotutako ikuskapenetan duen parte-hartzea, eta batez ere ingurumen-ikuskapenetara zuzentzen da haren jarduera, berariazko administrazio-ahalaz baliatuz.

Urteko programak zehazteko orduan, Ikuskapen Planean finkatutako **helburu estrategikoak** eta lehentasunak hartzen dira oinarritzat. Helburu horietatik, ikuskapen-programa honekin lotura dutenak adierazten dira ondorengo taulan.

<b>IKUSKAPENAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK</b>	<b>Erreferentzia</b>
- <i>IPPC jarduerak</i>	1
- <i>IPPC ez diren jarduerak</i>	2
- <i>Hondakinen kudeaketa</i>	4
- <i>Ingurumen-arazoak</i>	5
- <i>Abisuen kudeaketa</i>	7
- <i>Ikuskapen-ahalmena handitzea</i>	9
- <i>Ikuskapena bateratzea estatu- eta Europa-mailan (REDIA, IMPEL...)</i>	10

**2015eko ikuskapen-programa** honetan, helburu estrategiko batzuetan garatzeko planifikatutako proiektuak zehaztuko dira, eta proiektu bakoitzaren helburu espezifikoak eta jomugak ezarriko dira. Bestalde, nahiz eta proiektu bakoitzaren dokumentuan zehaztuko den lan-plangintza zehatza (bisitatu beharreko enpresak, ikuskatzaile bakoitzaren egitekoak, data zehatzak...), programa honetan azaltzen dira proiektu bakoitzean gauzatu beharreko adierazleen eta jarraipenaren ildo nagusiak.

## **2. 2015eko PROGRAMAREN HELBURUAK**

---

2015eko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Programak funtsezko oinarri hauek ditu:

### **a) IPPC jardueren jarraipenaren ikuskaritza<sup>1</sup>.**

Ikuskapen horien xedea da IPPC enpresek ingurumen-kudeaketaren eta -araudien betetze-maila handia izaten laguntzea, jardueren talde horretan erantzunkidetasun publiko-pribatuak administrazio-ahaleginak murriztu ditzan.

2015ean, ahaleginen jomuga izango da arriskuen ebaluazioaren arabera programatutako ikuskapenak betetzea, eta betetze-maila baxuena duten, ingurumenari gehien eragiten dioten edo arrisku handiena duten enpresen jarraipen espezifikoa egitea. Halaber, aurten amaituko da Ingurumen Baimen Bateratua (aurrerantzean IBB) lortzeko epea, 5/2013 Legeak aldatutako Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen aplikazio-eremuan barne hartzen diren jarduerengatik.

### **b) IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea.**

2014an, kutsadura-ahalmen handiena duten enpresen zerrenda bat osatu zen talde horren baitan, eta ikuskapenei ekin zitzairen. Urte horretan, IPPC ez diren jardueren ikuskapenak programatutako ikuskapenen zati handi bat hartuko dute, horri atxikitako ingurumen-arriskua kontrolatzeko betetze-maila tartekoa-altua izatea bermatzeko aldera.

### **c) Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren (AKDJ) eta Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) Ikuskapena.**

Arlo honetan, helburua da ezarritako epeetan atmosferara egindako emisioak erregularizatu ez dituzten AKDJk identifikatzea, eta ingurumen-organoak arlo horretan indarrean dagoen araudia hobeto betetzeko jarduerak abian jartzea.

Era berean, airera egindako emisioen kontrol ofizialak egiten dituzten Administrazioaren Erakunde Kolaboratzaileak ikuskatuko dira, horien kalitatea bermatzeko.

### **d) Hondakinak kudeatzeko eta ekoizteko jarduerak kontrolatzea.**

Arlo honetan, 2015eko programarako helburuak honako hauek dira: zenbait hondakin mota (Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak -TEEH-, Erabiltzen Ez diren Ibilgailuak -EEI-, Eraikuntza eta Eraispeneko Hondakinak -EEH-, zepak... kasu) zuzen kudeatzen direla bermatzeko kanpainak egitea; hondakinen lekualdaketa kontrolatzeko plan bat egitea, eta hondakinak zabortegietan sartzea kontrolatzea.

---

<sup>1</sup> Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko 16/2002 Legearen eta haren ondorego aldaketan aplikazio-eremuko jarduerak.

e) **Ingurumen-arazoak konpontzen edo minimizatzen laguntzea.**

2014an puntu honekin lotutako proiektuak berrantolatu egin dira. Batetik, arrisku handiagoa edo betetze-maila baxuagoa duten IPPC enpresek jarraipen espezifikoak dute IPPC jarraipen-ikuskapenen proiektuan. Jarduerak egiteari utzi ondorengo hondakinen eta materialen kudeaketa-proiektuak pisu handiagoa hartu du ingurumenari dagokionez garrantzia handia duelako, eta ingurumen-arazoen arlo horretara igaro da. Azkenik, Donostialdean usainen arloko proiektuei eutsiko zaie, baita Pasaiaiko portuaren ingurumeneko ekintza-plana betetzearen jarraipenari ere.

f) **Programatu gabeko ikuskapenak.**

Programatu gabeko ikuskapenek kexa, salaketa, gertaera edo istripuekin izango dute zerikusia. Horretarako, 24 orduko laguntza-zerbitzua egongo da abian, urtearen 365 egunetan, noiznahi egon dadin informazioa jasotzeko eta ebaluatzeko aukera, bai eta ingurumen-arriskuak edo kalteak ekiditeko komeni diren jarduerak hastekoa ere.

g) **Sailburuordetzaren beste eremu batzuetako ikuskapen-premiak eta jarduerak identifikatzea.**

Programa honen irismenak, ikuskapen-xedeari dagokionez, industria-jarduerak ikuskatzeko bokazioa du. Hori horrela izanik, aurtengo ekitaldian, ingurune naturaleko ikuskapen-premiak aztertuko dira, eta beroriek ikuskapen-programa bakar batean integratzeko bideak esploratuko.

## 2.1.- 2015eko helburu estrategikoak eta proiektuak.

Ondorengo taulan, Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren helburu estrategikoen garapenean, 2014ko ekitaldirako programatutako proiektuak daude jasota.

Planaren helburu estrategikoa	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA
IPPC jarduerak ikuskatzea (3.1.i atala)	01/2015	IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	Arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera programatutako ikuskapenak Betetze-maila baxuena duten, ingurumenari gehien eragiten dioten edo arrisku handiena duten enpresen jarraipen espezifikoa IPPC jarduera berrien ikuskapena, abian jartzen direnetik urtebetera
Arrisku handiena duten IPPC ez diren jardueren ikuskapena (3.1.ii atala)	02/2015	IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea	Arrisku handiena duten IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea
	03/2015	AKDJk eta ILEak ikuskatzea	Ezarritako epeetan emisioak erregularizatu ez dituzten AKDJk identifikatzea Atmosferara egindako emisioen kontrol ofizialak egiten dituzten ILEak ikuskatzea
Hondakinak kudeatzea (3.1.iv atala)	04/2015	Hondakinen kudeaketa kontrolatzea	Zabortegetan hondakinen sarrera kontrolatzea EElak kontrolatzea: legez kanpoko kudeaketa-bideak identifikatzea eta kontrolatzea Balioa har dezaketen hondakinen eta hondakin problematikoen kudeaketa
	05/2015	Hondakinen tokialdaketa	Hondakinak lekualdatzeko ikuskapen-plana egitea, EB 660/2014 Erregelamenduan ezarritako mugaz gaindikoetarako aurreikusia
	06/2015	Zepa siderurgiko eta metalurgikoak kudeatzea	Zepen kudeaketak indarrean dagoen araudia betetzen duela egiaztatzea.
Ingurumen-arazoak (3.1.v atala)	07/2015	Donostialdeako usainak	Usain-gertakarien iturri nagusiek hartutako neurrien eraginkortasuna egiaztatzea
	08/2015	Pasaiako Badiaren leheneratzea sustatzea	Pasaiako Badiaren ingurunean erakundeen arteko ingurumen-ekintzen planari jarraipena egitea
	09/2015	Hondakin arriskutsuak (HA) eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.
Abisuak/larrialdiak kudeatzea (3.1.vii atala)	10/2015	Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	24 orduko erantzuna antolatzea, gertaera eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko. Ikuskapen Zerbitzuaren erantzuna antolatzea, Larrialdi Planen eta taktika operatiboaren aurrean.

Proiektu guztiak ondorengo egitura izango duen dokumentu batean garatzen dira:

1.	<i>Aurrekariak</i>
2.	<i>Proiektu mota</i>
3.	<i>Berriazko helburuak eta jomugak</i>
4.	<i>Jarduera-plana</i>
5.	<i>Adierazleak</i>
6.	<i>Baliabideak</i>
7.	<i>Jarraipena</i>
8.	<i>Kronograma</i>
9.	<i>Eranskinak.</i>

## **2.2.- 2015eko ikuskapen-proiektuak: berriazko helburuak eta jomugak.**

Proiektuen berriazko helburuak eta jomugak zehaztuko ditugu jarraian, **Planaren helburu estrategiko** bakoitzaren barruan.

### **1. helburua: IPPC jardueretarako araudia jarraitasunez betetzea.**

Helburu estrategiko honek lotura estua du «IPPC jardueren ikuskapena» izeneko hainbat urtetarako proiektuarekin.

#### **2.2.1.- 01/2015 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea**

Horixe da Ikuskapen Zerbitzuaren lehentasunezko proiektuetako bat, EAEn kutsadura-ahalmen handiena duten jardueren ingurumenean izan dezaketen eragina kontrolatzea baitu helburu.

2013an, Industriako Emisioen Zuzentaraua Estatuko legedira ekarri zen 16/2002 Legea aldatzen duen 5/2013 Legearen eta geroztik onartutako 815/2013 Errege Dekretuaren bitartez. Horregatik, 2014tik aurrera, aipatutako araudian ezarritakoaren arabera egin dira IPPC jardueren ikuskapenak. 2015ean, egungo sistematikarekin jarraituko da.

2014ko programan argitaratutako prozedurei jarraikiz egingo dira ikuskapenak. Batetik, ikuskatu beharreko enpresa gisa hartuko dira egindako arriskuen ebaluazioaren arabera hautatutakoak. Ebaluazio horretan zehaztuta dago ikuskapenen maiztasuna. Talde honen baitan, jarraipen espezifikoak egingo zaie arriskuagatik, araudia betetzeagatik edo inguruari eragiteagatik aurten administrazio-ahalegin handiagoa behar duten jardueri. Bestalde, kontuan izango dira IPPC enpresen zerrendan sartu diren enpresa berriak, bai Industria Emisioei buruzko Zuzentaru berria aplikatzeagatik, bai berriki eraikia izateagatik, bai IPPC izateko eskaera-prozesuari ekin diotenengatik eta dagoeneko badaudenengatik.

2015ean, urteroko maiztasuna dagokien 35 enpresak ikuskatuko dira, bi urtez behingoa dagokien 54 enpresa (2014an, maiztasun hori zegokien gainerako enpresak ikuskatu ziren) eta hiru urtez behingoa dagokienez hirutatik bat (29 enpresa). Orotara, 117 IPPC jarduerari egingo zaie ikuskapen programatua.

2015erako programatutako jarduerak honela banatuko dira jarduera sektorearen arabera:

IPPC KODEA	JARDUERA SEKTOREA	PROGRAMATUTAKO JARDUEREN KOPURUA
1	Errekuntza-instalazioak	4
2	Metalen ekoizpena eta eraldaketa	58
3	Mineralen industriak	7
4	Kimika-industriak	12
5	Hondakinak kudeatzea	22
6	Zuretik eratorritako industria	6
9	Nekazaritzako elikagaien industria eta abeltzaintzako ustiategiak	4
10	Disolbatzaile organikoen kontsumoa	4
	<b>GUZTIRA</b>	117

Ikuskapena egin ondorengo arriskuen ebaluazioaren arabera araudiaren betetze-maila, arrisku-ahalmena edo ingurunearekiko eragina hobetu behar duten jardueren jarraipen espezifikoak egingo da.

**Berriazko helburuak eta jomugak**

- IPPC enpresek ingurumen-araudiaren betetze-maila hobetzea
- Desbideratze larritzat eta nabarmentzat sailkatuak zuzentzea sei hilabete baino gutxiagoan eta betetze-maila baxua dutela jotako jarduerak goragoko kategorietara igarotzea urtebetean baino gutxiagoan.
- Herritarrengan edo ingurumenean eragozpenak edo arriskuak sor ditzaketen IPPC jarduerak kontrolatzea.
- IPPC berriei ikuskapena egitea, abian jartzen direnetik edo Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) lortzen dutenetik urtebete igaro baino lehen.



## **2. helburua: Arrisku handiena duten eta IPPC ez diren jardueren ingurumen-araudia betetzea.**

### ***2.2.2.- 02/2015 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua***

Badaude zenbait enpresa IPPC izatera iritsi gabe kutsadura-ahalmen handia dutenak, eta, beraz, indarrean dagoen araudiari dagokionez horien betetze-maila egiaztatzeko beharrezkoa da horiek ikuskatzeko ikuskapen-proiektu bat ezartzea. Enpresa horiek hautatzeko iturria izan da 2012. eta 2013. urteetan egindako diagnostikoa, laguntza tekniko baten laguntzaz. Hautatutako enpresek ingurumenen dituzten inpaktuak baloratu dira.

Proiektu hau urte askotakoa da, eta 2014an hasi ziren haren jarduerak. Proiektu honekin lotutako jarduerak ikuskatuko dira Ikuskapen Zerbitzuak bere lehentasunezko proiektuak gauzatzen dituen heinean. Aurten, 60 enpresa hautatu dira.

#### **Berriazko helburuak eta jomugak**

- IPPC ez diren eta arrisku handiagoa duten enpresek ingurumen-araudiaren betetze-maila areagotzea.
- Betetze-mailaren diagnostikoa, ez-betetzeen ezaugarritzea eta horretarako arrazoak
- Administrazioaren esku-hartzearen estrategiak zehaztea eta martxan jartzea jardura horiek bete daitezten, administrazio-ahalegin handiagoa eginez arrisku handiena duten desbideraketetan.

### ***2.2.3.- 03/2015 Proiektua: AKDJk eta ILEak ikuskatzea***

278/2011 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen ditu araudira egokitzeko epeak dagoeneko badauden AKDJetarako. Azken egokitzapen-epea 2015eko urtarrilean betetzen da. Proiektu honek Ikuskapen Planeko bi helburu estrategiko jasotzen ditu; izan ere, batetik, epe barruan erregularizatu ez diren jarduerak identifikatzea du xede, eta, bestetik, IPPC ez diren jardueren ikuskapenak sustatzea ikuskapen-programaren baitan.

Bestalde, 212/2012 Dekretuak Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILE-k) erregulatzen ditu; besteak beste, IPPC jardueretan nahiz AKDJ instalazioetan emisioak ofizialki kontrolatzen dituztenak. Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren kolaboratzaileak dira erakunde horiek; beraz, administrazio-ikuskapena bete behar dute.

#### **Berriazko helburuak eta jomugak**

- Atmosfera kutsatzeko ahalmena duten jardueren araudiaren aplikazio-eremuaren baitan egonda beren egoera erregularizatu ez duten jarduerak identifikatzea.
- Araudi horren betetze-mailari, arazoiei eta abarri buruzko informazioa aztertzea, administrazioaren esku-hartzearen estrategia zehazte aldera, atmosferara egindako emisioen araudiaren betetze-maila areagotzeko.

- Aurreko puntuan zehaztutako estrategia aplikatzea.
- ILE-ek araudia betetzea bermatzea, 2014an hasitako bisitak osatuz erakundeen %100ean.

#### 4. helburua: Hondakinen araudia betetzea.

Aurreko urteetako esperientziak lagundu digu helburu honekin lotutako proiektuak birplanteatzen. Ildo honetan, aurtengorako hiru proiektu aurreikusten dira: bata, hondakin mota desberdinen kudeaketa kontrolatzekoa; bestea, hondakinak lekualdatzekoa, eta, azkena, berriz, espezifikoa eta 2014ko programan aurreikusia, zepa siderurgikoen kudeaketakoa, alegia. Bestalde, jarduera bertan behera uzteko proiektua –2014an helburu honi esleitua– ingurumen-arazoetako helburuari lotu zaio; izan ere, esperientzia ikusita, uste da hobeto egokitzen dela.

Lehenengo proiektuan, 2014an egindako jardueren jarraipena gauzatzea aurreikusten da; hala nola Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak (TEEH), Eraikuntza eta Eraispeneko Hondakinak (EEH), zabortegietan hondakinen sarrera kontrolatzea, etab. Gainera, kanpaina espezifikoak abiaraziko dira beste hondakin mota batzuetan, Erabiltzen Ez diren Ibilgailuetan (EEI) kasu, eta 2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana kontuan izanda, balioa har dezaketen ikuspuntutik garrantzitsuenak diren hondakinetan.

Koordinazioa egituratuko da nekazaritzan eskuduna den Sailarekin, giza kontsumorako ez diren animalien azpiproduktuekin (SANDACH) zerikusia duten instalazioak kontrolatzearen arloan. Esku-hartze puntualak ere egingo dira, inbentariatutako kokalekuen lurzoruen mugimenduak kontrolatzeko.

#### **2.2.4.- 04/2015 Proiektua: Hondakinen kudeaketa kontrolatzea**

Proiektu hau kanpaina espezifikoen bidez gauzatuko da, jarraian zehaztuko diren helburuekin eta jomugekin lotuta.

##### **Berriazko helburuak eta jomugak**

- Kontrolatzea eragiketa horretarako baimenik ez duten kudeatzaileek egiten duten TEEHen kudeaketa, ikuskapen-jardueren eta ingurumen-diziplinaren bidez.
- Eraisketa-obra handietan sortutako EEHak 112/2012 Dekretuan ezarritakoari jarriki kudeatzen direla egiaztatzea.
- Erabiltzen ez diren ibilgailuen kudeaketako legez kanpoko jarduerak zehaztea eta kontrolatzea
- Zabortegien zuzenketa-neurriak hartzen dituztela egiaztatzea, IBBren eta aplikatu daitezkeen legediaren betetze-maila egokia izateko.
- 2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin bat, ikuskapena bideratuta egongo da balioa har dezaketen hondakin aipagarrienak kudeaketa-bide egokietara joatera.

### **2.2.5. 05/2015 Proiektua – Hondakinen lekualdaketa**

EB 660/2014 Erregelamenduak ezartzen du hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketatarako Ingurumenaren Ikuskapenerako Plan bat onartuta izan behar dela 2017ko urtarrilaren 1erako, eta planak izan behar dituen zenbait baldintza ezartzen ditu. EAEn, 22/2011 Legeak aipatzen dituen lekualdaketak ere aintzat hartu nahi dira plan honetan.

#### **Berriazko helburuak eta jomugak:**

- Indarrean dagoen legedia eta gai horri dagokionez IMPEL erakundeak egindako dokumentu teknikoak aztertzea.
- Hondakinen lekualdaketa ikuskatzeko proiektu honetarako ildoak eta helburuak ezartzea eta EAEko Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planean txertatzea
- Autonomia-erkidegoen eta Ministerioaren arteko koordinazioa REDIA bidez, ikuskapeneko planak eta prozedurak egiteko.
- Izapideak zein diren jakitea onartzeko eta EB 660/2014 Erregelamendua betetzeko

### **2.2.6. 2015/06 Proiektua - Zepa siderurgikoen kudeaketa.**

Balioztatutako zepen kudeaketa eta erabilera erregulatuta daude EAEn hondakinen araudi orokorraren bidez eta 34/2003 Dekretuaren bidez.

#### **Berriazko helburuak eta jomugak**

- Egiaztatzea zepa siderurgikoak eta metalurgikoak balioztatzeko bide baimenduetara doazela, eta, halakorik ezean, ezabatu egiten direla.
- Zepa siderurgiko eta metalurgikoen ekoizle eta kudeatzaile nagusiak ikuskatzea.

## **5. helburua: Ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea**

Planaren helburu estrategiko hori da Ikuskapen Zerbitzuaren emaitzak lortzera zuzendutako kudeaketara ondoen egokitzen denetako bat; batez ere, industria-jarduerek ingurumen-arazoetan daukaten eragina esanguratsua denean, ingurumen-eta gizarte-arloko gatazkak ere kontuan harturik. Urte batzuk badira jada hurbilpen horrekin lan egiten ari dela, eta emaitza onak lortzen ari da. 2015. urteari dagokionez, 2014an abian jarritako edo planteatutako zenbait proiektuekin aurrera jarraituko da, baita beste berri batzuekin ere. E

Kasu horietako gehienetan jarraitzen den prozedura orokorra honako hau da:

1. Arazoa berrestea eta ezaugarriak finkatzea.
2. Iturriak identifikatzea eta zenbaterainoko eragina duten kalkulatzeko.
3. Administrazioaren esku-hartzea eragina edo arazoa kontrolatzeko.
4. Fase guztietan, gainerako organo eskudunekin eta parte interesatuekin koordinatzea.

5. Emaitzak ebaluatzea: arazoaren ebazpena edo proiektuaren berrikuspena egitea.

Helburu estrategiko horri lotutako proiektuen berriazko helburuak eta jomugak jarraian daude jasota:

#### ***2.2.7. 07/2015 Proiektua: Donostialdeako usainak.***

Eremu horretan antzemandako usain-gertakarien ondorioz sortu zen proiektu hau. Lehenengo fasean, iturriak identifikatu ziren eta horiek landu ziren neurriak hartzeko eragozpenak sortzen zituzten emisioak hobeto kontrolatze aldera.

##### **Berriazko helburuak eta jomugak:**

- Gertakariak aztertzeko ikerketak amaitzea eta hobekuntza-aukerak zehaztea emisioen kontrolean
- Aurreko urteetan hartutako neurrien eraginkortasuna egiaztatzea.
- Parte interesatuekin koordinazioa eta komunikazioa egotea.

#### ***2.2.8. 08/2015 Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakinen eta materialen kudeaketa.***

Azken urteetako egoera sozio-ekonomikoak eragin du enpresa askok jarduera bertan behera utzi beharra. Kasu gehienetan, lehiaketa-prozeduren bidez gauzatu da eta ekoizpen-lantegietako materialen eta hondakinen kudeaketa-prozedura antolatu bat gauzatu gabe. Proiektu honetan 2014an egindako jarduerak arrakasta desberdina izan dute, kasuistika handia baitago.

##### **Berriazko helburuak eta jomugak**

- Administrazioaren esku-hartzea neurri egokiak hartze aldera aurreko urteetan ikuskatutako eta arrisku handikotzat sailkatutako jardueretan arriskuak kontrolatzeko.
- Jarduerak bertan behera uzteko prozesuak hasten dituzten jarduerak identifikatzea eta goiz esku hartzea
- Kudeaketak egitea lehiaketa-administrariekin eta epaitegiekin, ingurumen-aldagaia txertatzeko lehiaketa-prozeduretan.

#### ***2.2.9. 09/2015 Proiektua: Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea***

Eusko Jaurlaritzaren Programak Sailerako helburuen artean aurreikusten du Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea. Proiektu hori lerrokatuta dago Gobernuaren helburu horrekin eta erakundeen arteko ekintza-plan bat gauzatea aurreikusten du. Plan horretan parte hartuko dute hauek: Ingurumen Sailburuordetzak; Donostiako, Pasaiaiko, Lezoko eta Errenteriako Udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Portu Agintaritzak.

### **Berriazko helburuak eta jomugak:**

- Airearen kalitate- eta zarata-maila onargarriak mantentzea portu-inguruetan, bai eta badiako uren kalitatean ere.
- Airearen kalitatearen eta zarataren arloan herritarrei eragiten zaizkien eragozpenak sortzen dituzten gertaerak kontrolatzea, bai eta badiara egiten diren isurketena ere.
- Administrazio guztiekin jardun koordinatua, sortutako mahaiaren bidez.

### **7. helburua: Abisuen (kexak, salaketak, gertakariak...) eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa.**

Helburu estrategiko honek urte askotako proiektu bat du 2015erako. Proiektuaren garapena ingurumenari buruzko abisu edo larrialdien kasuan 24 orduz arreta edo erantzuna ziurtatzera zuzenduta dago. Horretarako, bi laguntza teknikoren sostengua izango da aurrerantzean ere: biek txandaka egingo dute lan, bitarteko eta baliabide egokiak izan ditzaten abisuei erantzuteko eta, behar izanez gero, berorietan sortutako hondakinak kudeatzeko.

#### **2.2.10. 10/2014 proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa**

Salaketetatik eratorritako abisuen, SOS-DEIAK abisuen, gertakarien, istripuen eta abarren erantzuna geroz eta garrantzitsuagoa da araudiaren betetze-maila areagotzen doan heinean; izan ere, egoera hauetatik eratorritako ingurumen-eraginak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen hasi dira. Ildo horretan, erantzun hobea eman behar zaien proiektu-operatibean berrikuspen osoa egingo da 2015ean.

### **Berriazko helburuak eta jomugak:**

- Urteko 365 egunetan, 24 orduz, ingurumenari buruzko abisuen erantzun eraginkorra kudeatzea.
- Abisuak sartzeko bideak, kudeaketa-prozedurak eta egindako jardueren dokumentazioa hobetzea, horiek alde aurretik aztertu ondoren.
- Aurreko puntuan identifikatutako premietara egokitutako laguntza teknikoak kontratatzea eta lan-prozedurak berrikustea.

### **9. helburua: Ikuskapen-ahalmena handitzea.**

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren galga nagusia proiektuak egikaritzeko eskura dituen giza baliabide mugatuak dira. Hala ere, efektu biderkatzailea sortzea da garrantzizkoena ikuskapen-ahalmena optimizatzeko, eskura dauden giza baliabideak eta bitarteko materialak egoki kudeatzearen bitartez eta, ikuskapenen osagarri eta sostengu gisa, Ingurumen Lankidetzako Erakundeak erabiliz.

Ondoren azaltzen dira eremu honetako zenbait jarduera-ildo:

- Ingurumen Lankidetzako Erakundeei buruzko Dekretuaren berrikuspena

- Ikuskapen-prozedurak eta informazioaren kudeaketa automatizatzea, espedienteen izapidetze elektronikoa abian jarritz.
- Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sarearen baliabideetan oinarritzea, airearen kalitatearekin eta emisioekin lotutako egoera analitikoki ezaugarritzeko.
- Eskura dauden baliabide materialak kontrolatzeko eta erabiltzeko prozedurak eta inbentarioa
- Ikuskapen Zerbitzuko teknikariaren lana sistematizatzea eta harmonizatzea, prozesuaren kudeaketan kalitate-irizpideak mantentzearen bidez.

## **10. helburua: Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea.**

Helburu honen xedea da Ikuskapen Zerbitzuko jarduerak egokitzea estatuko nahiz Europako testuinguruari, ikuskapenarekin lotutako fase guztietan parte hartzeko; besteak beste, araudia egiteko irizpideetan eta ikuskapenak egiteari dagozkionetan. Horretarako, elkarrekin lan egiteko eta informazioa trukatzeko foroak daude, non Ikuskapen Zerbitzua partaide den eta parte-hartze aktiboa duen, hala nola REDIA, ingurumen-ikuskapen agintaritzen sarea (autonomia-erkidegoak eta Ministerioa) eta IMPEL (Europako Esparru Ekonomikoko estatuak; Europar Batasuna, batik bat).

### **3. GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.**

2015ean, Ikuskapen Zerbitzuak aurreko urtean zuen egitura berbera mantenduko du: zerbitzuburu bat (1), zortzi (8) ikuskapen-teknikari, lege-aholkularitza eta administrazio-sostengua. Ikuskapen-teknikarietako bi Bizkaiko Lurralde Historikoan daude (Bilbon dute bulegoa), eta beste bi Gipuzkoako Lurralde Historikoan (Donostian dute bulegoa).

Programatutako jarduerak dauden baliabideetara egokituta daude, eta aurreikusita dago ingurumen-ikuskatzaileen prestakuntzan eta profesionalizazioan aurrera egitea, zehazten diren planen arabera, betiere, egiten diren lanetarako gaitasun teknikoak ziurtatzeko xedez.

Ikuskapen-programako helburuak betetzeko estrategia gisa eta 2011-2018 aldirako Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planeko ildoekin bat etorrita, aurreikusi da kanpoko laguntza-teknikoak kontratatuko direla 2015eko ikuskapen-programaren baitako jardueretako zenbait egiteko laguntza gisa.

### **4. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.**

Sistema honetan, oinarrizko informazioa sortzea eta tratatzea bilatzen da, ikuskapenen plangintza eta programazioa egiteko (zerrendak, legez kanpokoak identifikatzea...)

2014an, aurrera egin da informazioa digitalizatzearen arloan. Gaur egun, Ikuskapen Zerbitzuko informazio osoa euskarri digitalean eskura daiteke eta ikuskapenentarako aplikazio informatiko espezifiko baten bidez kudeatzen da. Gainera, beste administrazio-unitate batzuekin lan egin da, zerbitzu desberdinen dokumentu-mapak koordinatzeko eta horiek Eusko Jaurlaritzaren irizpide orokorrekin ezartzeko.

Arlo honetan, 2015erako jarduerak honako alderdi hauek izango dituzte ardatz:

- Sailburuordetzako beste administrazio-unitate batzuen informaziorako sarbidea hobetzea, eta, aldi berean, beste unitate batzuei erraztea ikuskapenaren arloko informazioa eskuratzea.
- Jendaurrean jartzea ikuskapenaren arloko programak, memoriak eta txostenak, Eusko Jaurlaritzaren web orri ofizialaren bidez.

## **5. KONTROL-PLANA.**

---

2014an, IPPC Zerbitzuak sistematika bat ezarri du IBbri lotutako jardueren zaintza-planen urteko txostenak komunikatzeko, hain zuzen, egindako zaintza- eta kontrol-jardueren berri ematen dutenak.

2015ean, aplikazio informatikoan prozedura automatizatu bat ezarriko da zaintza-planen dokumentu-ikuskapena egiteko. Horrek ingurumen-kontrola hobetzen lagunduko du.

## **6. INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.**

---

2011-2018 aldirako Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da ikuskapenaren lege-esparru eguneratua edukitzea, ikuskapen- eta kontrol-antolakuntzaren araudia garatzea, eta ingurumen-diziplina aplikatzea, ikuskapenetatik eratorritako espedienteei dagokienez.

## **7. INGURUMEN-IKUSKAPENERAKO ETA -KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.**

---

Proiektuetako bakoitzean egikaritze-kontrolerako adierazle batzuk ezarriko dira, eta proiektuen jarraipena egitea ahalbidetuko dute. Oinarrizko irizpide gisa, aurten proiektuen segimendua gutxienez sei hilean behin egitea planteatu da.

Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programa hau guztiz garatzeko. Horregatik, lehentasun handieneko proiektuekin hastea proposatu da, gainerakoak baliabideen arabera aurrera eramateko.

Barneko segimenduak Programaren egikaritzea doituz joatea ahalbidetuko du, ingurumenaren aldetik garrantzi edo arrisku handiena dutenei lehentasuna emanaz. Segimendu hori Ingurumen Sailburuordetzaren bileren bitartez egingo da; bilera horietan, zuzendaritza-taldeak eta Sailburuordetzako zerbitzu teknikoetako langileek parte hartuko dute.